

1923an, Poloniako merkataria judu aberats baten alabarekin ezkondu zen. Aitaginarrebak Parisera bidali zituen, besteak beste Polonia zaborrontzi bat zela esateagatik; Frantziako hiriburuari sasoiarik emankorra bizi zuten.

Estalinismoaren saldukeria

Parisen, 1928an, *Pałę Paryż* (Nik Paris erretzen dut) idatzi zuen, zeina burgesiaren eta kapitalismoaren kontrako aldarri koraltzat hartzen den. Obraren literatur maila jasoaren ondorioz, eta garaiko giro politikoa tarteko, sekulako arrakasta izan zuen irakurlearen artean, baita kritikarientz ere. Hori dela eta, frantsestara itzuli zen zitzuan. Halere, frantziar agintariak deportatu egin zuten egilea, haren eta obraren izaera iraultzaileagatik. Horiek horrela, 1929an, Leningraden finkatu zen emaztearekin, non heroi gisa hartu zuten; *Pałę Paryż* eleberriaren 130.000 ale plazartu ziren. «Bruno Jasienski burgesiaren etsai arriskutsua, lagun leialetan onena eta langile-klasearen soldadurik onena», *Literatura Gazieta*-ren arabera.

Seme bat ere izan zuten, Bruno. Dibortziatu, eta beste emazte bat ere izan zuen, baita alaba bat ere. Eta handik gutxira, Moskura joan zen. Kultura sobietarrean txertatu zen, bai eta goi postuetan kokatu ere; hala nola Moskuko Langile Idazleen Sindikatuko idazkaria izan zen. Garai hartan, 1939an, bere bigarren obra garrantzitsuena idatzi zuen, *Bal Manekinów* (Manikien dantza): sozialdemokratak industrialen esanetara dauden txotxongilo gisa aurkezten dituen satira bat da, hori ere Parisen girotua. Ordurako, estalinismoaren jarraitzaile amorratu zen.

Haatik, estu-estu besarkatu zuen ideologiak bizkarra eman zion idazle laudatuari, eta SESBen erbestertutako hainbat poloniar komunistari gertatu bezala, nazionalistatza, espioitza eta herriaren etsaitza hartu zuten. Ondorioz, estalinismoaren garbiketen biktimetako bat bilakatu zen. 1938an, Siberiara bidali zuten, eta sekulako torturak ere jasan zituen; besteak beste, hortzak eta azazkalak atera zizkion. Egonaldi beldurgarri horretan hainbat aldiz idatzi zion Stalini, hil zezatela eskatzeko. Biografia batzuen arabera, 1939ko abenduaren 16an zendu zen, tifusak jota, baina, beste biografia batzuetan jasotzen denez, 1938ko irailaren 17an exekutatu zuten Moskuko Butyrka espetxean. 1956an absolutu zuten.

Ulergaitzarekin zer egin

Irati Majuelo

Kangaroo du izena Martin Etxeberriaren azken poesia liburua, eta izenburu ezohikoaren azalpenarekin hasten da liburua. Pasarte labur batean kontatzen da Britaniako Inperioa Australiako badiara iritsi eta lurra bere egiterakoan nola hizkuntzaren bidez kolonizatu zizuten halaber bertakoak. Jatorrizko biztanleekin izandako elkarrizketa posible batekin irudikatzen da pasadizoa. Bi hankatan jauzi egiten zuen animalia ikusi eta nola deitzen ote zen galdetu zuten konkistatzaileek. Bertakoei erantzun: *kan ghuru*, alegia, «ez dizut ulertzen». Gaizki ulertu horren karietara bataiatu omen zen animalia. Ideia horren bidez, ulertzen ez diren gauzak onartzeko deia egiten du idazleak, poesiaren zentzu guztiak ez ulertzeko baimena ematen dio irakurleari. Hots, ez saiatzeko

deszifratzen, eta sentiarazten dionarekin geratzeko. Alabaina, ideia hori kolonialismoa azaltzeko erabili ohi den anekdota edo irudiarekin agerraraztea arraro xamar geratzen da, bereziki, liburuan zehar ez dagoelako apenas bestelako loturarik izenburuarekin, ez kontaktuz horrekin.

Aurreko liburuen bidetik,



'Kangaroo'

Idazlea: Martin Etxeberria.
Argitaletxea: Elkar.

Leihopeko hotsak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu hau maitatzeko hamaika arrazoi aurki ditzake irakurleak. Ni, partikularki, bere izaera leunak xarmatu nau: kontaktuzna eguzkitan epeldutako errekarria bezain leuna dela esango nuke figura literarioak erabiliko banitu hitz biluzien ordez.

Haur literaturan istorio leun eta gozo ugari daudela kontuan hartuta, ordea, zergatik nabarmendu leuntasuna beste ezaugarrien gainetik? Bada, proposatzen den irakurle adinagatik, liburua 10 urtetik gorako irakurleei eskaintzen dielako argitaletxeak (eta gutxitan bezala ni ados argitaletxeen xede-adinarekin), idazlearen oniritziarekin, suposatzen da.

Liburua oraindik irakurri ez

dutenek zertan arituko garen ulertzeko, jar ditzagun oihal baten gainean obra hau osatzen duten piezak.

Kontaktuzna *Mila eta bat gau* bezala eraiki da, istorio nagusi



'Ilargiaren xuxurla'

Idazlea: Juan Kruz Igerabide.
Ilustratzailea: Manu Ortega.
Argitaletxea: Giltza.

Etxeberria ezaugarritzen duten zenbait elementu errepikatzen dira poema bilduma honetan ere. Esaterako, erreferentzia literarioek betetzen dituzte poemetak asko, testuarteakotasun nahia azalduz, izan espazio edo pertsonaia konpartituen bidez (*Genesisia*, *Comalara itzulera*), izan aipamen zuzenen bidez (*Sansón Carrascorigutuna*, *Ikaroren bagina* edo *Bilbo-Berlin-Venus* poemako Raymond Carverren berriarurketa). Testuarteakotasunak on egiten die poemei, idazlearen erreferente kuttunak adierazteaz gain, irakurleari egiazko heldulekuak eskaintzen baitizkio, intelektualismo hutsean geratu gabe.

Horrez gain, sexualitateak pisu nabarmena du, aurretik idatzitako *Winston* (2018) liburuan bezalaxe. Larru jotzeak deskribatzerakoan, iruditeria zehatz batera jotzen du idazleak, tabakoz, whiskiz eta ezpainetako gorritz inguratutako eszenak baitira, elkar maite ez duten maitaleen amorruez, eta horien bidez malenkonia edo abaildura irudikatzen dira. Ildo horretan, metafora higatu samarrak gertatzen dira sexu-eszenei dagozkien zenbait («ezpainen lubakietan / babestu ginen»). Bestalde, sexuari egin-

dako erreferentzia ugari erabiltzen dira bestelako gaiak lantzeko: heriotza, ihes egiteko nahia edo norbere itzalen onarpena, kasu. Adibidez, zorientasun labainkorrean atzetik dabilatzane buruz mintzo da. «makillaje gehiegi duten / stripper merkeen antzera», edota «herdoildutako alua» duen mundua aurkezten du «ipuin berriak / asmatzeko garaia» dela azaltzeko. Gorputzak presentzia handia du poemetan, beraz, bereziki emakume gisa irakurtzen diren gorputzak agertzen direlarik, eta batik batik genitalen bidez edo sexualitatearekin erlazioatutako elementuen bidez adierazten dira.

Hala ere, oroitzapenei helzten dieten poemak nabarmenak dira liburuan (*Inurri hegaldunak*, *Udako goiz haiek*). Izan ere, kasu horietan idazkera narratiiboak zertaz ari den zehazten laguntzen dio idazleari, eta horrelakoetan, irudi ederrak sortzen ditu. Alabaina, gainerakoetan, gehienek kutsu ilun bat dute, batez ere lehenbizikoetan, eta anbiguotasun lanbrotu bat, ulerkeria zailtzen diena. Hasieratik ematen du abisua Etxeberriari, ulergaitza besarkatzekoa, baina besarkatu ondoren harekin zer egin, ez da argi geratzen poema ugaritan.

baten barruan testu laburragoak batuz. Testu osagarriak, jakina, hari nagusia elikatzeko dira eta molde desberdinetakoak dira: gutuna, oroitzapena, poema, herri ipuina...

Narratzailearen ahotsa Urxa izeneko haur batena da, protagonista ekintzailea izan gabe, hainbat gertakariaren lekuko eta parte hartzaile badena. Ziurrenera bere ekarpen handiena kronikari gisa egiten duen lana da, iraganeko hainbat kontu gogora ekarritza gertatzen ari direnak bere izaera leunaren (!) bahetik iragazita eskainiz.

Narratzaileak berekin ditu aita, ama eta neba; ezpal berekoak guztiak.

Kontaktuzna Mali Okic deitzen den Esloveniako herrirako batean gertatzen da, Kroaziako mugatik oso gertu. Kokapena (mapetan ikus daiteke) gako nagusietako bat da kontaktuznean, iheslarietako muga inguru haietatik zeharkatzen dutelako, Austriarako bidean edo.

Gainera, Mali Okic inguru horrek duen izaera basatia giltzarri bihurtzen da kontaktuzna boro-biltzeko. Inguru haietan dute aitorenaren etxe zaharra protagonis-

tek, eta inguru hartan hartzak ibiltzen dira.

Halaxe hasten da kontaktuzna, leihotik entzuten dituen hotsak hartzek eginak ote diren igarri ezinik, beldurrak jota dago gure narratzaileak.

Leihotik entzuten diren hotsak, horra muina. Entzutean zer ote diren pentsatzea, eta pentsatzen jarrita irudimena piztea, eta irudimena memoria, eta memoriak berriz ere orainera etorrarazi, eta buelta hasierako egoerara, leihoko hotsak entzutea.

Iraganetik orainera dabilen Urxa, iraganen hartzekin bizitakoak ekartzen ditu, familiako beste kontu batzuekin batera, gerrakoak ere bai, eta oraineran iheslariak ezagutuko ditu, hartzak bezala, gauetan, leihopetik entzuten dituelako isilka, joanean. Eta eurekin bizipen berriak izango ditu, memoriara gehituko zaizkionak.

Sei ataletan eskaintzen zaigu kontaktuzna hau, zeina funtsean haur baten harridurarekin begiraturako mundu baten kronika errealista den, kronika leuna, gordinkeriarik gabe munduan gertatzen direnak deskribatu daitetzkeelako. Eta parte hartu.